

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko urtarilaren 15a. IX. urtea. 2.464. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Bengoetxea VI.ak eta Beroizek sendo jarraitzen dute binakakoan

Pilotari leitzarrek eta bere bikoteak 22-21 irabazi diote Arretxe II.a eta Beginori; garaipen horrekin, jokaturako lau partidak irabazi dituzte eta aurrenak doaz sailkapenean **07**

Pellejerok eta Olanok ezin izan dute irabazi Larretxearen eta Irazabalen aurka

Aresoarra eta leitzarra Zilarrezko Aizkolarien Binakako Txapelketatik kanpo geratu dira, igandean Leitzan jokatu zuten kanporaketan 29 segundoko aldeagatik galdu ondoren **06**

Ehunka pertsona joan dira Bilboko manifestazioan parte hartzera bi eskualdeetatik

Euskal presoen eskubideen aldeko mobilizaziora hogeita bost autobus atera ziren larunbatean; Herrira ekimenak «ikaragarria» izan dela azaldu du **04**

Inaxio Perurenak saiakera berria egingo du 300 kilokoarekin

Igandean, hilak 20, Leitzako Amazabal pilotalekuan 300 kiloko harri koadroa altxatzen saiatuko da leitzarra; 12:30ean hasiko da jaialdia **07**

→ **Estreinaldien egitaraua.** Tolosako Udalak neguko kultur egitaraua aurkeztu du, eta martxoaren 22ra bitarte luzatuko da. Bihar, 'El lago de los cines' ballet ikuskizuna izango da, Leidorren. Ostiralean, 'Gau erdian' antzerki obra estreinatuko dute, eta otsailaren 1ean, 'Emaztegiaren semea' antzezlan. Otsailaren 22an, berriz, 'Gabriel Aresti rebiziting' emanaldia eskainiko dute lehen aldiz, Oskorriren parte hartzearekin. **02**

Elurretako argazki lehiaketa

Bidali Tolosaldean eta Leitzaldean ateratako elurretako argazkiak:

tolosaldean@hitza.info

*argazkien gutxienezkoa: 20 cm-ko zabalera eta 300eko bereizmena

Parte hartzaileen artean Hitzaren materialez osaturiko sorta zozkatuko dugu

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info



‘Gau erdian’ antzerki obraren estreinaldia ostiral honetan izango da, Leidor aretoan, 20:30ean

Itzea Urkizu Tolosa

Hiru hilabetez, martxoaren 22ra bitarte, Leidor, Topic, Bonberenea, Amarotz, Otsabi eta Tolosako beste hamaika txoko, kultur jardueraz beteko dira, neguko kultur egitaraua osatuz.

Jokin Ansorena kultur teknikariak nabarmendu duenez, «adin, sexu eta gustu guztiak asetu dituzte» egitarauak, eta antzerkia, dantza, musika zein literatura bilduko ditu.

Aurkepenean, Mikel Arreseigor zinegotziak egitaraua osatu duten eragileei eman zien hitza; Itziar Atienza eta Iker Galarza aktoreak, Unai Igartua Kilometroak 2013ko koordinatzailea, eta Intujai teatroko Mai Gorostiaga eta Bea Larrañaga bertan izan ziren.

«Tolosa estreinaldien tradizio gune» dela azpimarratu zuen Ansorenak, eta horren harira, hainbat ikuskizunek Leidorreko ohol-tza aukeratu dute, lehen emanaldia eskaintzeko, besteak beste, *Gau erdian* eta *Emaztegiaren semea* antzerki obrak, eta Oskorriren *Gabriel Aresti Rebiziting* emanaldia.

Hainbat eragileren egitaraua

Tantak antzerki konpainiaren eskutik estreinatuko dute, ostiralean, *Gau erdian* antzerkia. Itziar Atienza eta Iker Galarza aktoreek, eszenografia sinplea erabiliko dute, bi pertsonen arteko harremana interpretatzeko.

Beste estreinaldietako bat, Oskorriren emanaldi berria izango da. Kilometroak 2013ren eskutik, musika taldeak beren hastape-nak gogora ekartzeko berreskuratu duen ikuskizunaz gozatu ahal izango da Tolosan, Gabriel Arestiren hitzak abestuz.

Azkenik, Intujai teatrok zapz-pargarenez antolatuko du, ahozko-tasunaren nazioarteko Ahoz Aho jaialdia. Otsailaren 25ean hasita, martxoaren 7ra bitarte, Tolosako auzoetan eskainiko dituzte emanaldiak, aktore euskaldun nahiz kanpotarrek.



Itziar Atienza, Iker Galarza, Jokin Ansorena, Mikel Arreseigor, Unai Igartua, Mai Gorostiaga eta Bea Larrañaga izan ziren aurkezpenean. I. URKIZU

Martxoaren 22ra bitarte luzatuko da neguko kultur egitaraua

↓ 2013ko neguko kultur egitaraua Tolosan

URTARRILAK 16, ASTEAZKENA

- **20:30.** *El lago de los cisnes*, Leidorren. Errusiako Estatuko Baleta.

URTARRILAK 18, OSTIRALA

- **20:30.** *Gau erdian* antzerki obra, Leidorren. Tantak.

URTARRILAK 19, LARUNBATA

- **18:00.** Txolarre irratia-aren bertso saioa: Andoni Egaña, Alaia Martin, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Igor Elorza eta Jon Maia.
- **18:30.** *Bueltaka*, Behi Bi's-en eskutik, Topic zentroan.

URTARRILAK 25, OSTIRALA

- **20:30.** Jabier Muguruzaren

kontzertua izango da Topic-en. *Bikote* bat azken lana, aurkeztuko du.

OTSAILAK 1, OSTIRALA

- **20:30.** *Emaztegiaren semea* antzerki obra izango da, Leidor aretoan, Ados antzerki taldearen eskutik.

OTSAILAK 8, OSTIRALA

- Ostiral meheko jaialdia, Leidor aretoan.

OTSAILAK 22, OSTIRALA

- **20:30.** *Gabriel Aresti rebiziting* emanaldiaren estreinaldia izango da, Leidorren, Oskorrirenkin batera. Kilometroak 2013k antolatuta.

OTSAILAK 23, LARUNBATA

- **18:30.** *Cenicienta y las zapatillas de cristal* ikuskizuna eskainiko dute, Topic zentroan, Luna Teatrosen eskutik.

↓ Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

Txakurra. Txakurra galdu da Tolosa inguruan. Pekines arrazakoa da, marroi kolorekoa, eta txipa dauka. Abenduaren 24an galdu zen. Topatzen duenak, dei dezala 679 72 09 22 telefono zenbakira.

OTSAILAK 25, ASTELEHENA

- **22:00.** Ahoz aho jaialdiko bi emanaldi, euskaraz eta gaztelez, Amarotz auzoan: Urrup (Euskal Herria) eta Pollo Rosa (Euskal Herria).

OTSAILAK 26, ASTEARTEA

- **17:30.** Ahoz aho jaialdiko haurrentzako emanaldia Amarotz auzoan, euskaraz: Iñaki Carretero (Euskal Herria).

OTSAILAK 27, ASTEAZKENA

- **17:30.** Ahoz ahoko emanaldia Amarotzen, haurrentzat, euskaraz: Ines Bengoa (Euskal Herria).
- **22:30.** Ahoz aho jaialdia, Otsabin: Barry Manley (Irlanda) eta Pollo Rosa (Euskal Herria).

OTSAILAK 28, OSTEGUNA

- **16:00.** Ahoz aho, EPAn: Soledad Fellosa (Uruguai) eta Alekos (Kolonbia).
- **22:30.** Ahoz aho, Orbela tabernan: Martha Escudero (Mexiko) eta Soledad Fellosa (Uruguai).

MARTXOAK 1, OSTIRALA

- **20:30.** *Pottola* antzez-lana, Leidor aretoan, Txaloren eskutik.
- **23:00.** Ahoz aho: Carlos Ara-

dros (Errioxa, Espainia) eta Alekos (Kolonbia).

MARTXOAK 2, LARUNBATA

- **11:30.** Ahoz aho jaialdiko emanaldia, Bonberenean: Maite Franko (Euskal Herria).

MARTXOAK 8, OSTIRALA

- **20:30.** *Hau ez da kasualitatea* bertso saioa, Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Leidorren: Ainhoa Agirreazaldegia, Alaia Martin, Miren Amuriza eta Uxue Alberdi.

MARTXOAK 15, OSTIRALA

- **20:30.** *Hiru eleak: Lizardi, Lauaxeta, Lete* musika eta literatura ikuskizuna Topic aretoan, Antton Valverde eta Anjel Lertxundiren eskutik.

MARTXOAK 16, LARUNBATA

- **18:30.** *Blue bird* ikuskizuna, Topic aretoan, Anita Maravillas taldearen eskutik.
- **Bi saio, orduak zehazteke.** *Sentitu, pentsatu, ekin!* Leidor aretoan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin, Kilometroak 2013k antolatuta.

MARTXOAK 22, OSTIRALA

- **20:30.** *Arte-An* dantza ikuskizuna izango da, Leidor aretoan, Dantzas konpainiaren eskutik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Sahararen aldeko kanpaina, Alegian eta Abaltzisketan

Elikagaiak, norberaren garbiketarako produktuak eta eskolarako materiala biltzen ari dira udaletan

Erradakzioa

Abaltzisketan eta Alegian ere, Tolosaldeko herri askotan bezala, Tolosaldea Sahararekin elkarteko urteroko antolatzen duen kanpainarekin egin dute bat.

Elkarteak elikagaiak, norberaren garbiketarako produktuak eta eskolarako materiala bildu nahi ditu Saharara bidaltzeko, eta aipatu herrietan udaletxeetan utzi daitezke produktu guztiak; Alegian urtarrilaren 25a arte, eta Abaltzisketan hila bukatu bitarte. Alegiako kasuan udaletxeak gizarte zerbitzuetara jo behar da ekarpenak egiteko 09:00etatik 13:30era. Astelehenetan bulegoa itxita egoten da. Era berean, San Juan eskolara ere jo ahalako da ikastetxearen ohiko ordutegiaren barruan.

Era berean, ekarpen ekonomiko ere egin daiteke kontu korronte hauetan dirua sartuta: Kutxabaneko 2101 0067 22 0011180866 eta La Caixako 2100 1758 68 0200077750.

Elikagaiak dagokienaz, denbora luzean irauten duten produktuak eskatzen dituzte; lekaleak, arroza, hegazuak eta sardinak oliotan, pasta, azukrea, edo olioak, esaterako. Eta norberaren garbiketarako konpresak eta pixoiak.

Nairobitarra urteko bidaiei buruz hitz egiteko bilerak antolatu ditu

Erradakzioa Tolosa

Nairobitarra kultur elkarteak 2013. urterako prestatu dituen bidaiei buruz hitz egiteko bi bilera egingo ditu bihar eta ostegunean, hilak 17.

Bihar Vasaloppet eta Kungsleden egingo dituzten eski zeharkaldiak izango dituzte hizpide. Eta ostegunean Nepal eta Alpeetan egingo dituzten mendi zeharkaldiak.

Bi bilerak Antxon Bandres Bidaierien Txokoa izango dira 20:00etatik aurrera.

Irudia Tolosa



LANKIDETZA HITZARMENA

Tolosako Udalak eta Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuak lankidetza hitzarmena sinatu dute, proiektuetan eta jarduerak teknologikoetan elkarlana eta parte hartzea bultzatzeko. Era honetan ikastetxeak eta udalak, elkarrekin, interesgarriak diren ekitaldiak aurrera eramateko konpromisoa hartu dute. Irudian, ezkerrean, udalaren izenean, Inaki Irazabalbeitia eta TLHko zuzendari Gorka Igartua.

Elkartasun kroseto antolatzaileek eskerrak eman dituzte

Helduen lasterketan zozketa irabazi zutenei beraiekin harremanetan jartzeko eskatu diete

Erradakzioa Tolosa

Samaniego-Orixe kirol eskolako kideek eskerrak eman dizkiete pasa den abenduaren 31ko Elkartasun Krosean lagundu zuten

guztiek; parte hartzaileei, laguntzaileei, ikusleei eta bereziki babesleei «urteroko moduan hutsik egin gabe gure ondoan egon zaretelako». Lasterketa arrakastatsua izan zela esan dute.

Bide batez, helduen lasterketako 2, 96, 130, 149, 201, 426 eta 602 dortsalei zozketa irabazi zutela gogorarazi nahi diete eta beraiekin harremanetan jartzeko eskatu. Horretarako 943 65 10 63 telefonozenbakira deitu behar dute eta Mikel edo Lurdesengatik galdetu.

Asuncionez Ekoscan ziurtagiria eskuratu du

Klinikak ekoeraginkortasunean hartutako konpromisoa saritu du Eusko Jaurlaritzak

Erradakzioa Tolosa

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailak Ekoscan ziurtagiri ofiziala eman dio Tolosako Asuncion klinikari. Guneak ekoeraginkortasunarekin duen konpromisoa saritu nahi izan dute, izan ere, «Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 programaren helburu nagusia

euskal enpresa-egitura iraunkorago, berritzaileago eta eragin korrago egitea da, hartarako produkzio-prozesuan ingurumen aldagaia erabilita», azaldu du Asuncionez.

Klinikako kudeatzaileak, Iñigo Dendaluze, Ekoscan programan parte hartzea «osasun zerbitzuak eskaintzen dituen erakunde bezala, ingurumenarekiko erantzukizunagatik apustua indartzea balio erantsia dela» uste du. «Klinika iraunkoragoa izan dadin eta erakunde bezala ingurumenarekiko erantzukizun handiagoa har dezan saiatu diren langileei esker onak» eman dizkie kudeatzaileak.

Txoooooooootx!



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Itxitsi dira ba gipuzkoar ororen zat urteko egunik hoberekin. Gure urdaila Eguberrietako janak ezin digerituz dabilen une honetan, konturatu gabe iritsi zaigu txotx denboraldia! Eta berriz ere, bakailaoa saltsan, bakailaoa takoak, txuleta erre berria, intxaur erraldoiak, irasagar gozoa eta gazta xerra meheak ahortu behar. Ez gara ez makalak!

Baina hau guztia jateak zein zentzu edukiko luke janari eder hau ez bagenuke sagardoarekin bustiko? Arrazoi hau izango da nonbait sagardotegiak *sagardotegi* izena dutela eta ez *luzuzko jate*. Eta nola lotu behar du bada biologo arrunt batek, ekokulturan zutabe xumea eta sagardoaren mundu erraldoia? Ba oso erraz, sagardoa bizidunek egiten dutelako, eta ez naiz ari sagardogileaz, nahiz eta hau ere, bizidun oso errespetagarria den.

Kupel erraldoi horien barreneko sagardoen igerian, bizidun txiki txikiak dabilta eta hauek dira, muztio atera berria, denborarekin sagardo alkoholdun bihurtuko dutenak. Eskerrak haiei, arrakastarik izango ote luke alkoholik gabeko sagardotegi batek?

Sagarra prentsatzaren denean, sagar zukua biltzen da. Zuku hau azukrez bete beteta dago, oso elikagarria da eta bere barrenean jada, badabilta bakterio txikiak igerian, hauek ez dute edonora heltzeko gaitasunik beharrik, hortxe dabilta beti gure artean. Mikroorganismo hauek, bizidunak izanik, jan egin behar dute eta muztioaren azukrea atsegin dute. Eta noski, zuk eta nik bezala jan ostean, hondakinak sortzen dituzte, gureak arnasaren bidez eta komunetik behera kanporatzen dira, bakterioenak aldi kupelean geratzen dira.

Muztio hau beti ongi oxigenatuta eta bueltak emanez edukiko bagenu, mikroorganismoek oxigeno ugari arnasteko aukera izango lukete eta azukreak zuk eta nik bezalaxe, CO₂ eta ura bihurtuko lukete eta muztio honek ez luke alkoholik edukiko, airean dagoen sagar baten moduan ilundu egingo litzateke eta gure sagardo preziazua ez sen sortuko.

Baina muztioa kupelean geldigeldi eta tapaturik uztean, mikroorganismo hauek ez daukate oxigenorik eskura eta beste modu batera jan behar dute muztioa azukrea. Zuk eta nik hau eginez gero, oxigenorik gabe minutu gutxitan itoko ginatke, baina mikroorganismoak gu baino indartsua-

goak dira! Mikroorganismo hauek, arnasarik gabe ito ordez eta bizi irauteko bestelako erre-mediorekin gabe, azukrea oxigenoa erabili gabe kontsumitzen dute eta ondorioz, hondakin modura ez dute lehen bezala CO₂ eta ura askatuko; CO₂ eta etanola derituzon alkohol preziazua baizik! Horra hor muztioa, sagardo bihurtzearen miraria bizidun txiki txiki baten esku. Norbaitek ura ardo bihurtu zuela? Plajiatzailea!

Prozesu arraro eta berezia hau, oso antzekoa da mahats zukua ardo bihurtzean, baita ere garagar zukua garagardo bihurtzean. Ekialde urrunean, berdina egiten dute arrozarekin eta Euskal Herriari iritsi ziren bikingo famatuak ere ezti-urarekin berdina egiten zuten. Bada bai gizakiak alkoholarekin beharra! Zergatik ote? Ziur gehiago ligatzeko dela!

Sagardotegi guztietako aipamena izaten da «ñoi kupel hau hobe zeok!», «ñi nagusi, beste kupe-larek ezak!», «hau gozoa zeok, bestea garratzago zegoan!». Ba ote du ba, kupelearen egurraren izaerak eragina mikroorganismoen lanean? Ez ote du eragin handiagoa izango, kupelearen inguruko tenperaturak edo kupelearen barruan geratu den aireak?

Gipuzkoarren bizitzako misterio handi hau inork azalduko balit, eskertuko nioke eta honela, sagardotegi guztietan laugarren tragotki aurrera gertatzen diren ezbaita ugari argituko litzuke.

Beraz, sagardotegira joaten zaretenean, badakizue zuku preziazua honen barrenean oxigenorik gabe bizirik irauten ari diren bizidun txikiak daudela, horrenbeste atsegin dugu etanol alkohola sortzen. Sagardo denboraldi honetan, litekeena da kupel aurrean, kupel barruko mikroorganismoetaz pentsatuko duen pertsona bat edo beste egotea, nahikoa sari izango da ekokulturan txoko xume honentzat.

Eta aipamenak egin zein dudak argitzezko, *bioaniztasunetik@hotmail.com*, Facebook eta Twitter-ak hortxe daude zuen eskura, eta baita *bioaniztasunetik.com* webgunea ere. Izan sagardo denboraldi on bat eta erabili garraio publikoa!



Tolosako Udalak

IRAGARKIA

Tolosako Udalak 12 TRAFIKO LAGUNTZAILE hautatu behar ditu Udaltzaingorako, Inauterietan jarduteko (otsailaren 10en, igandea; 11an, astelehena, eta 12an, asteartea).

Oinarriak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udalarekiko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharrra 6 A ziklan, edota udaleko web orrian (www.tolosakoudala.net).

Eskeraerak aurkezteko epea 2013ko urtarrilaren 23an, 13:00etan, bukatzen da.

Tolosa, 2013ko urtarrilaren 8a.
ALKATEA,
IBAI IRIARTE SAN VICENTE



Tolosan hiru autobus bete ziren; argazkian jendea horietako batera jotzen...

Bilboko manifestazioan parte hartze «ikaragarria» eskualdetik

Tolosaldetik eta Leiztaldeetik 25 autobus atera ziren euskal presoekin eskubideen aldeko mobilizaziorako

I. Garcia Lande

Euskal presoekin eskubideen alde Bilbon larunbatetik egindako manifestazioa jende ugari joan zen Tolosaldeetik zein Leiztaldeetik. Tolosaldeko Herrira mugimendutik ahaldu dituzten, «euskal le mailan parte hartzea ikaragarria izan da eta horregatik zoriandu egin nahi ditugu bertan parte hartu zuten herritarrek. Gero eta gehiago gara eta aurrera begira ere lanean jarraituko dugu euskal preso eta ibeseraren eskubideen aldeko aldean gero eta gehiago izan gaituzten».

Mobilizazio horari horren ondoren, Herrira 4 del egin die bai Bilbon izan zirenei bai eta bertan izan gabe ere euskal presoekin eskubideen alde dagoen oro antolatzen diren ekimenetan parte hartzen. «Bereziki hileko azken ostiralean Tolosaldeko herri



Anoetan, autobusiara ligo aurretik, argazkia atera zuten...

gehienetan burutzen diren elkarretarazketan parte hartzeko eskatu du Herrira-k.

Tolosaldetik 22 autobus joan ziren Bilbora eta Leiztaldeetik beste hiru autobus joan ziren. Bestalde, autobusetan lekutik ez zegoela eta, hainbat pertsona autoetan joan ziren manifestazioan parte hartzeko.

Herrira mugimendutik azaldu duenez, «giza uholde erraldoi batek Bilbo hartu zuen presoekin eskubideen eta konponbidearen alde Euskal Herrian sekula egin dako mobilizaziorik handiena

Irudia o Irkaztegieta



IRAZUSTA ETA MATXAIN, IRABAZLE

Ikaztegieta Euskal Herriko Mus Txapelketaren lanporoketa jokatu da asteburuan. Guztira hemait bikoite lehiatu dira eta irabazleak Mari Jose Irazusta eta Andoni Matxain izan dira. Hauxe gail, Segurako hemaitoko finalera pasatu direnak Antz Artola eta Jove Beldarrain izan dira. Bikoite bakoitzak afaria jaso du sarritzat.

Irudia o Tolosa



GIRO BIKAINA LOS PANCHOS-EKIN

la 600 pertsona elkartu ziren ostiral gauetan Los Panchos taldearen kontzertuan, Leidor aretoan. Giro bikaina sortu zen saloian eta musikari mexikarrek hainbat autografo sinatu zituzten emanaldiaren bukaeran.


Irudia o Tolosa



HERRIRA-REN SARIA BANATU DUTE

Tolosako Herrira mugimenduari zozketako sariak banatu dituzte. 0875 zenbakia izan da sariduna eta hiru lagunak artean banatu dituzte sariak: Aitor Tato eta Andoni, Alain Mujika zezamena eta Asier Etxaniz ezkiotarra. Herrira-ko Mikel Zabalak (irudian, ezkerrean), eman die saria irabazteel.

Irudia o Amasa-Villabona



BERRIA TALDEAREN ALDEKO JAIALDI ARRAKASTATSUA

Ehunika ziztada jaso zituen Villabonatik Berria egunkariari, joan den ostiralean. Gurean egindako jaialdian, Antzokia leporaino bete zen herriko kultur taldeek eta beste zenbait artistek eskaini zuten ekitaldi bikainaz gozatzeko. Euskarari Ados! lan-mahala eta Villabonako Udaleko langile zein ordezkariak gozotik egin zuten lan

Berria-erentzat dirua biltzea helburu zuen jaialdia ongi aterata zedin. Antolatzaileen arabera, «ekitaldia zoragarria izan zen ikusleek bozki gozatu zuten ohoitza gainera ligo ziren taldeekin». Izan ere, Petri abeslariak, Oinarko dantza taldeak, Loatzo musika eskolak, Eresargi Abesbatzak, Eresargi Gaztek, Harituz Tolosaldeko bertso-

riek eta Lain taldeko kideek «sekulako ikusizuna» eskaini zuten. Horiek guztiak «txalo zaparrada luzeak» jaso zuten, erakutsitako originaltasuna eta kalitatea eskertze aldera. Amasa-Villabonako Udalak ekimenaren inguruko albiste eta argazkiekin atala sortu du, www.villabona.eu/eu/ziztada-berria-helbidean.



Azkenik, Herrira mugimenduari zozketako sariak banatu dituzte. 0875 zenbakia izan da sariduna eta hiru lagunak artean banatu dituzte sariak: Aitor Tato eta Andoni, Alain Mujika zezamena eta Asier Etxaniz ezkiotarra. Herrira-ko Mikel Zabalak (irudian, ezkerrean), eman die saria irabazteel.

TX

2 sarrera

LAGUN ARO GBC

Fiatc Juventud

sari-balo partitza

18:00 - 20:00

Donostia-Kurria

Zozketan parte hartzeko diru-erabaria 14.30ak baino lehen 943 65 56 95 telefono zenbakira.

zozketa

Txolarre Irratiaren bertso salorako

2 sarrera

Larunbata - urtarrilak 19 - 18:00

Tolosako Leidor Aretoa

Zozketan parte hartzeko diru-erabaria 14.30ak baino lehen 943 65 56 95 telefono zenbakira.

sarrerak

Berria jaialdia

↓ **Kirol emaitzak**

PILOTA

LEHEN MAILAKO BINA KAKO	
TXAPELKETA	
Ligaxka, 4. jardunaldia	
Xala-Barriola	22
Olaizola II-Zabala	21
BengoetxeaVI-Beroiz	22
Arretxe II-Begino	21

Sailkapena

1. BengoetxeaVI-Beroiz	4-0
2. Irujo-Zabaleta	3-1
3. Xala-Barriola	3-1
4. Olaizola-Zabala	2-2
5. Titin-Merino	2-2
6. Gonzalez-Zubieta	1-3

Hurrengo jardunaldia

Xala-Barriola
BengoetxeaVI-Beroiz

EUSKAL HERRIKO PILOTA

TXAPELKETA (Aurrera Saiatz)	
Kadeteak	
Ander (Aurrera Saiatz)	18
Zestoa	3
Ion Ander-Gorka (A-S)	20
Lemoa	22

Jubenilak

Aitor (Aurrera Saiatz)	5
Erreka	22
Egoitza (A-S)	6
Oiarpe	22
Eñaut-Ion (A-S)	22
Lemoa	8
Peru-Gaizka (A-S)	22
Olaboru 2	1
Andoni-Xanet (A-S)	22
Olaboru 1	17

22 urte azpikoak

Ion (Aurrera Saiatz)	22
Txaruta	15
Aritz-Ifigo (A-S)	12
Amurrio	22

Seniorrak

Ander (Aurrera Saiatz)	22
Gazteleku	5
Arkaitz (Aurrera Saiatz)	2
Zaramaga	22
Eneko-Koldo (A-S)	17
Eibar	22
Bixintxo-Xabier (A-S)	22
Txukun Lakua	13

GIPUZKOAKO PILOTA

TXAPELKETA (Intxurre)	
Infantilak	
I. Arandia-E. Azpitarte	18
Lapke	3

UDABERRI PILOTA

TXAPELKETA (Intxurre)	
Kadeteak	
J. Luzuriaga-A. Murua	22
Intza	13

Jubenilak

A. Goikoetxea-M. Luzuriaga	22
Añorga	13

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA	
15. jardunaldia	
Santurtzi - Ibarra	0-3
Aurrera - Egintza	8-1
Buruntza - Laskorain	2-2
Sestao - Tolosala Hirukide	4-6

Sailkapena

1. Ibarra	37p
2. Aurrera	33p
3. Bilbo CFS	30p
4. Tolosala Hirukide	27p
9. Laskorain	21p
12. Egintza	16p

Hurrengo jardunaldia

Ibarra - Santurtzi	
Aurrera - Laskorain	
Buruntza - Tolosala Hirukide	
Zarautz - Egintza T.L.	

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA

17. jardunaldia	
Urola - Tolosa CF	2-3

Sailkapena

1. Hernani	39p
2. Real Union	39p
3. Aretxabaleta	33p
9. Tolosa	24p

Hurrengo jardunaldia

Berio - Tolosa CF

SOKATIRA

GOMA GAINEKO EUSKAL

HERRIKO TXAPELKETA

8X8, 680 kilotan, finala

1. Abadiño
2. Ibarra
3. Zuraide

8X8, 540 kilotan,

lehen jardunaldia

1. Ibarra
2. Badaiotz
3. Bizindar

SASKIBALOA

LEHEN MAILA

13. jardunaldia	
TAKE Bide Bide- Biok	65-58

Sailkapena

1. Asesoria Saf	11-2
2. Tabirako	9-4
3. Lizuan.com	9-4
8. TAKE Bide Bide	6-7

Hurrengo jardunaldia

Tabirako-TAKE Bide Bide

TXIRRINDULARITZA

GIPUZKOAKO PISTAKO

TXAPELKETA

Emakumeak

1. Ane Santesteban
2. Nahia Domingez
5. Ainhoa Larrañaga
6. Maddi Amondarain

Kadeteak

1. Aratz Olaizola
2. Endika Mendizabal

5. Aitor Irazu

9. Jokin Odriozola

Juniorrak

1. Xabier San Sebastian
2. Jon Irisarri
3. Onditz Urruzmendi

Open maila

1. Unai Iparragirre
2. Asier Maeztu
3. Unai Tolosa



Leitzako Amazabal pilotalekuan herri kirol jaialdia antolatu zuten herenegun. JONE AMONARRIZ

29 segundoko aldeagatik galdu dute Pellejerok eta Olanok, Amazabalen

Urtarrilaren 27ko aizkora apusturako prest dago Jon Irazu zizurkildarra; behatzeko lesioa ahaztuta dauka

Asier Imaz

Asier Pellejerok aresoarrak eta Arkaitz Olano leitzarrak amore eman behar izan zuten igandean, Larretxearen eta Irazabalen aurrean. Zilarrezko Aizkolarien Binakako Txapelketaren kanporaketa jokatu zen Leitzako Amazabal pilotalekuan, eta kanpotarrek lortu zuten aurrera egitea ahalbidetzen dien txartela.

Lehen ariketan Pellejero eta Olano nagusitu ziren, 45 ontzako enborra 40 kolpetan moztuta. Aurkariek 41 kolpe behar izan zituzten. Aldea bigarren ariketan irauli zuten Larretxeak eta Irazabalek. 45 ontzako enborra 1:31ko

denboran moztu zuten, aurkariei 15 segundo kenduz. Zutikakoaren ondoren, bi bikoteak parean gelditu ziren. Laugarren ariketan erabaki zen lehia. Bi bikoteek, 60 ontzako enborra moztu behar zuten, eta Larretxeak eta Irazabalek 20 segundotik gorako aldea lortu zuten.

Azken ariketan, bi bikoteak parean ibili ziren, ordura arte lortutako aldean eragin handirik egin gabe. Amaieran, etxekoek 13:29ko denbora markatu zuten, eta kanpotarrek, 13:00koa.

Urrezko mailako lehia ere jokatzekoa zen Leitzan, igandean, baina iragan astean bertan behera gelditu zen, Ander Erasunen lezioagatik.

Apusturako sarrerak

Jon Irazu zizurkildarra gustura aurkitzen da bere buruarekin, urtarrilaren 27ko apustuari begira. Gogor prestatzen ari da desafioa, eta aste honetan amaituko ditu

entrenamendu gogorrak. Ondoren, atsedenaldi aktiboari ekingo dio, hurrengo igandera puntupuntu iristeko. Behatzeko lesioa gainditu ondoren, aitzakiarik ez dela egongo esan du Irazuk. Aizkolari zizurkildarraren lehen apustua izango da, eta beldurrik handiena horrek ematen diola onartu du Irazuk. Xabier Zaldua, aldiz, plaza gizona da, eta hainbat apustu jokatu ditu. Zizurkildarrak jakin badaki ondo prestatuta joango dela Tolosako zezen plazara zumaragarra.

Jon Irazu eta Xabier Zalduaren arteko aizkora apustua urtarrilaren 27an jokatu da Tolosako zezen plazan, 12:00etan. 14 enbor moztu beharko ditu aizkolari bakoitzak: 4 oinbiko eta 10 kanaerdiko. Lanak azkarren egiten dituenak 12.000 euro irabaziko ditu. Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai Tolosako zezen plazaren leihatiletan, 30 euroren truke.

Garaipenarekin berrekin diote ligari Ibarrek eta Hirukidek

A. Imaz

Areto futboleko eskualdeko lau taldeek kolore guztietako emaitzak lortu dituzte Gabonetako atsedenaldiaren ostean. Hirugarren mailako sailkapenak aldaketa handirik gabe jarraitzen du, hau da, Ibarrek lehen postuan segitzen du eta Hirukidek laugarren. Asteburu honetan bi talde hauen eskutik etorri dira garaipenak. Laskorainek berdinketa erdietsi zuen, eta Villabonako Egingtzak porrota.

Laskorainek garrantzi handiko puntua lortu zuen Lasarteko Buruntzaren etxean. Talde horitxotik azaldu dutenez, zelai horretan oso zaila da ezer lortzea, eta horri, laskoraindarren baja garrantzitsuak gehitu behar zaizkio puntuaren balioaz jabetzeko: «Taldekotutabe garrantzitsu diren Murgik eta Gilek orkatila bihurrituta eta sorbalda irtenda zituzten, hurrenez hurren. Deialdia osatzeko, harrobiko jokalariek izan arren lehenengo taldean gero eta pisu gehiago hartzen ari

diren Josu, Zumeta eta Eñaut *pistoleroak* bereganatu behar izan zituen Aitor prestatzaileak».

Geldialdiaren ondoren ez galdiezi garrantzia eman, eta puntu soil horri datorren astean etxeko partida irabazita jarraipena emateko asmoarekin itzuli ziren etxera tolosarrak.

Lasarteko partidaren ondoren, Laskorain sailkapen nagusian bederatzigarren postuan dago, 21 punturekin. Egintza bost puntu gutxiagorekin dago, sailkapeneko hamabigarren postuan.

Bengoetxea VI.ak eta Beroizek partida guztiak irabazi dituzte

Mikel Olazabalek jaialdiko lehen partida galduta Tolosako Beotibarren, Arruti lagun duela

Asier Imaz Tolosa

Lehen Mailako Binakako Pilota Txapelketaren laugarren jardunaldiko azken partida jokatu zen atzo, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Gorriz, Oinatz Bengoetxea eta Mikel Beroiz kantxaratu ziren, eta urdinez, Begino-Arretxe

II.ak osatutako bikotea. Akatsez beteriko partida izan zen, baina 22. tantoa egiten asmatzen duenak irabazten duenez, atzoko partida Bengoetxea VI.a-Beroizek irabazi zuen, 22-21. Saillkapen nagusian lehen postuan daude, bakarrik, lehia guztiak irabazi ondoren.

Urdinek hasieratik hartu zuten aurrea, joko handirik erakutsi gabe. Gorriek hamaikana berdintzea lortu zuten, eta partidari buelta ematekotan zirela zirudien, baina hutsegiteek aukera hori bere horretan utzi zuten. Emozioa markagailuak 16-20 jar-



Oinatz Bengoetxea, Arretxe II.aren pilota erantzun ondoren, kantxara itzuleran. A. IMAZ

tzen zuenean iritsi zen. Dirua lehen aldiz urdin ari zen kantuan, eta dena hor amaituko zela zirudien. Usteak erdia ustel, eta hogeinako berdinketa. Dirua gorri, eta partida amaitzeko bi tanto bikoite bakoitzari. Berririo urdinak aurreratu ziren markagailuan, eta erabakigarria zirudien, baina partida osoan ikusi ez zen Oinatz Bengoetxea orduan agertu zen,

pilota bizi mugituz, eta arriskuak hartuz. Berdinketaz gain, azken tantoa ere berak lortu zuen. Lehenik, ezker airez zabalean jarri zuen pilota, eta Arretxe II.ak ozta ozta itzuli ostean, txokoan moztu zuen partidari amaiera emanaz. Tolosako Beotibar pilotalekua ez zen bete atzokoan, inondik ere, baina eskertu zuten partidak azken zatian izan zuen emozioa.

Lehen mailako lehiaren aurretik, bigarren mailako binakako txapelketaren partida jokatu zuten Olazabal-Arrutik eta Apezetxea-Larrinagak. Azken hauek izan ziren nagusi partida osoan zehar, eta emaitza argi batekin lortu zuten txapelketako lehen jardunaldia irabaztea: 22-6. Mikel Olazabal aresorrarak ez zuten bere egunik onena izan atzokoa.

Inaxio Perurenak hirugarren saiakera egingo du, igandean

300 kiloko harri koadroa altxatzen saiatuko da Leitzan, igandean, 12:30etik aurrera

A. Imaz Leizta

Inaxio Perurena leitzarra 300 kiloko harri koadroa altxatzen saiatuko da urtarrilaren 20an, igandean, Leitzako Amazabal pilotalekuan. Herri kirol jaialdia 12:30ean hasiko da, eta Perurenak 5 minutu edukiko ditu 300 kiloko harria bizkarrean berdintzeko. Igande

honetakoa, pisu horrekin egingo duten hirugarren ahalegina izango da. Lehen saiakera Asteasun egin zuen Perurenak. Harria jaso ondoren, bizkarrean berdintzen ari zela, atzera erori eta harria hautsi egin zitzaion. Bigarren saiakera duela hilabete egin zuen, Leitzan, bertan. Harriarekin bi ahalegin egin ondoren, amore eman behar izan zuen.

Hirugarren saiaketa honetan harria bizkarrean berdintzen baldin badu, Inaxio Perurena Gibitegi, Iñaki Perurena eta Mieltxo Saralegiren taldean sartuko litzateke, hau da, 300 kiloko harria jaso dutenen artean.

Sabino Etxeberriak irabazi du XXVI. Insaustiren Oroimenezkoa

Gipuzkoako taldekako ligan, Tolosako xake taldeak garaipenak lortu ditu etxetik kanpo, asteburuan

A. Imaz Tolosa

JA Insaustiren XXVI Oroimenezkoa jokatu zen aurreko igandean Aurrera elkartearen. Lehiaketa xake azkar erara jokatu zen, eta inguruko 18 jokalariek elkartu ziren Aurreran. Xakelariak lehenik bi multzotan banatu ziren, eta ondoren, multzoetako postuen arabera gurutzatu ziren. Txapeladuna Sabino Etxeberria tolosarra izan zen, finalean Miguel Aroztegi beasaindar gazteari irabazita. Hiru-



JA Insausti Oroimenezkoaren irabazleak, Tolosako Aurrera elkartearen. HITZA

garren Migelmari Baroja izan zen, Tolosakoa, hau ere. Azkenik, benjamin onenaren saria Ibai Mutiloa irurarrak eraman zuen. Bestalde, asteburu honetan hasi zen Gipuzkoako taldekako liga. Tolosako bi taldeak kanpoan ari ziren lehiari, eta 1-3 irabazi zu-

ten. Bergaran, Migelmari Baroja eta Sabino Etxeberriak garaipena lortu zuten, eta Javier Baroja eta Mikel Arechagak berdinketa. Hirugarren mailako taldea Arrasaten izan zen; Ramon Etxeberriak, Oier Otxoak eta Iker Artolak lortu zituzten puntuak.

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



JOXE LUIS ELIO

Urak dakarrena
urak daroa,
zuk emandakoa
gurekin geratzen da.

Goleiriko eskola kiroleko arduradunak

Milazabal, 2013ko urtarrilaren 15a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta/Aldea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarra/Aldea: 687 410 118. ibaralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizalde@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

BESTELAKOAK

■ **Tolosa.** Udalak inauterien inguruko bilera egingo du, gaur, 19:00etan, kultur etxean. Azken egunetan zezen plazaz jasotako proposamenak jorratu eta konpartituko dituzte herritarren artean. Jaia eta legea uztartu nahi dituzte udal ordezkariak.

■ **Tolosa.** Nairobitarra kultur elkarteak 2013. urterako Vasalopet eta Kungsledenen egingo dituzten eski zeharkaldien inguruko bilera egingo du. Antxon Bandres Bidaiarien Txokoan izango da, 20:00etan.

■ **Tolosa.** Txolarre irriatiak hilaren 19an, larunbatean, egingo duen bertso jaialdirako sarrerak salgai daude. Leidor aretoan, Egaña, Lujanbio, Maia, Arzallus, Elortza eta Martin bertsolariak ariko dira Amaia Agirre gai jarzailerean gidaritzapean. Sarreak: Tolosan Raku, Orbela, Kantabriko eta Denak tabernetan; Ibarra, Zubiaurre tabernan; Anoeta, Buztina tabernan; Villabonan, Amasa kafetegian; Zizurkil, Iriarte jatetxean; Alegia, Izkina tabernan eta Berastegin Urepele elkarteak. Aldez aurretik 10 euro eta egunean bertan 12 ordaindu beharko da.

■ **Abaltzisketa.** Abaltzisketan Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatzen duen kanpainarekin egin dute bat. Elkarrekin elikagaiak, norberaren garbiketarako produktuak eta eskolarako materiala bildu nahi ditu Saharara bidaltzeko. Produktuak udaletxean utzi behar dira.

■ **Alegia.** Saharara bidaltzeko produktu bilketa egiten ari dira; udaletxeko gizarte zerbitzuetan edo San Juan eskolan utzi behar da materiala.

■ **Amasa-Villabona.** Gaur, hilak 15, ikastolako kirol jertseak eskatzeko azken eguna da. Ikasto-

lako idazkaritzan egin behar da eskaera Zubi-musu guraso elkarteak jakinarazi duenez.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Iraia Okinaren ilustrazioak, eta Javier Baldaren eta Nerea Ugarteren lanak ikusgai daude, Aranburu jauregian.

IKASTAROKAK

■ **Tolosa.** Afrika Menbaldeko dantza ikastaroa izango da, Bonberenean, asteazkenero. Izena emateko bi modu daude: ainhoaagi@gmail.com helbidera idatziz edo 653 732 709 telefono zenbakira deituz. Hileko kuota 30 euroko da, eta Ainhua izango da irakaslea.

■ **Aduna.** Afrikar dantzen ikastaroa eskainiko du Aduna dagoen Asvinenea arte eszenikoaren laborategiak. Asteartero izango da ikastaroa 19:00etatik 21:00etara. Zuzeneko perkusio doinuek lagunduta, eta Marie Toure ginearra izango da irakaslea. Izena laidall@hotmail.com helbide elektronikora idatziz edota 691 626 606 (Laida) telefono zenbakira deituz egin beharko da. Hilabeteko kuota 45 euro izango da, eta bazkideentzat 40 euro.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoa eta gauekoa: Morant, R. Zabalarreta lortegiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Leitza



BERANDU BAINA IRITSI DA NEGUA

Negua iritsi da. Berandu bada ere Tolosaldeko eta Leizaldeko mendirik eta herririk altuenak zurutitu ditu neguko lehen elurteak. Leitza herria, arratsaldean botatako elurak zurutitu zuen. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak elurrez jantzita-

ko argazkiak bildu nahi ditu. Eskualdeko mendi, herri edota auzoetan ateratako argazkiak bidali tolosaldean@hitza.info helbidera. Parte hartzaileen artean Hitza materialeraz osatutako sorta zozkatuko da. YULIETXARRI

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak